



KORRALITO FORALA (komikia)

Iván Giménez / Javier Etayo, *Tasio*

ISBN: 978-84-7681-970-8

Urtea: 2016 / 128 or.

20 x 26 cm barneko irudiak koloreetan
azal gogorrean koadernatua

25,00 €

«Nafarroa ez da saltzen; gutxi batzuek oinordetzan hartzen dute» liburu honen lehenengo atala da, baita Iván Giménez kazetariak eta Tasio marrazkilariak agerian utzi duten mekanismo ezkutua ere: korralito foralaren mamia.

Orain arte *El corralito foral* liburuan irakurri ahal zenuena komiki honetan ere ikusi ahalko duzu. Iván Giménezen gidioak eta Tasioren binetek Nafarroako eliteen boterea nola eratu den azaltzen dute, modu lotagabe baina aldi berean zehatz eta zorrotz batez. Umoretsua, zergatik ez. Historia oso serioa da, baina horren kontakizunak ez du hain serioa izan behar, batzuetan solemnitaterik ez digulako gehiegi laguntzen: ziurrenik, aferaren larritasunaz ohartuko gara, irribarre egingez...

Gerra Zibilatik hona eratutako korralitoaren partaide guztiak aurkituko dituzu: Félix Huarte eta beste enpresari-diputatu frankistak (Zoco patxarana, Taberna okindegia eta abar), UPN eta PSNren arteko koalizio handia, UGT eta CCOOren sindikalismo bertikala, Corellako hartzaren klana, Trantsizioan Del Burgoren azpijokoak, Opus Deiren esku beltza...

• • •



Iván Giménez (Pamplona/Iruña, 1976)

Kazetaria. Hamahiru urtez ibili da lanean *Diario de Noticias* egunkarian, betiere tokiko albisteak ematen (politika, ekonomia, kirolak...). *Gure Mendiak* eta *Ezkaba* argitalpenetako zuzendari izan da, bai eta *Nabarra* euskarazko aldizkari eta Euskadi Irratiko «Amarauna» saioko kolaboratzaile ere; izan ere, kazetaritzarekin izandako lehen harremana Eguzki Irratia hedabide libreko mikrofonoetan izan zen, 1993. urtean.

Hainbat liburu argitaratu du, hala nola *Sendero urbano de Pamplona* (Arrako, 2000), *Ariznavarrako greba; quintasunezko 2 urte, 9 hilabete eta 17 egun* (Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, 2012), *ELA en Nafarroa, 100 años de transformación y lucha* (Txalaparta eta Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, 2012), *Agerre y Garcilaso. Dos periodistas, víctima y verdugo del golpismo navarro* (Pamiela, 2013) eta *El corralito foral. Las tripas del navarrismo: un ecosistema al servicio del capital* (Pamiela, 2015-6. edizioa, 2016), *Argia* aldizkarian ohiko kolaboratzaile izateaz gain.

www.elcorralitoforal.wordpress.com



Francisco Javier Etayo Larrainzar, Tasio ezinez ezaguna, Sesman (Nafarroa) jaio zen 1954an. Irakasle-ikasketak egin zituen, baina 1988az geroztik binetagle gisa egin du lan hainbat egunkari eta aldizkarian. 1991tik aurrera Egingen argitaratu zituen bere marrazkiak, hura itxi zuten arte, eta ondoren Euskadi Información egunkarian jardun zen. 2006an Gara egunkaria sortu zenetik, bertako komiki-bandek haren sinadura eraman dute.

Beste argitalpen batzuekin kolaboratzen du aldizka, eta binetagle-lana diseinuarekin eta karteekin tartekatzen du. Hainbat bilduma-liburu argitaratu du, esaterako Tasio, la tira en un año (1999), Giltzapeko umorea (2006), Historia navarra de Euskal Herria (2011), Pildoras (2012) eta Tasio 25 urte. EGINetik GARARA (2016).

Bere marrazkilari- eta irudigile-karreran zenbait sari jaso du, hain zuzen Tenerifen (Kanariar Uharteak), La Habanan (Kuba) eta Gernikan (Bizkaia), eta taldeko eta bakarkako erakusketetan parte hartu du. Haietako azkenak Tirabirak/Tiras que aflojan du izena, eta euskal geografia osoan zehar ibili da 2016an.



948 326535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com